

Villasante euskaltzain buru jaunak eman du lehen partearen berri: 1977 (XXII) EUSKERA zerbakiaren programaketaz, gai nagusien arteko Davanten sarrera hitzaldia eta Larzabalen erantzuna; Aditz sintetikoa; Justo Garateren lan bat; eta behar bada, denboraz heltzen baldin bada, Julio Caro Barojak eskainia digun lan bat. Ondorean, ohi den bezala, batzar txostenak, Euskaltzaindiaren agiriak, batzar agiriak eta gure hilak.

San Martin idazkariak, "Euskaltzaindia" izena Jose Ignacio Egurrola Madaria, Euskerazaleak elkartearen idazkari denak, Registro de la Propiedad Industrial-ean (Ikus, B.O. 1 de marzo 1977, reg. n.º 835.277) 16. klasean bere izenean jartzeko eskaria egin du, editorial, aldizkari, egutegi eta beste zenbait publikazio eta propagandetan erabiltzeko. Erregistro honetan behin onartua denak eskubide osoak hartzen ditu gero beste inork ez erabiltzeko, eta gure Euskaltzaindiaren juridiko nortasuna Gobernuak eman ondoren, zorionez, beste zenbait lotu beharren artean "Euskaltzaindia" izena ere erregistratu zen. Honegatik, orain, inpugnazioa egin zaio, eskari hori atzera botatzeko.

Ondotik aditz batzordeko diren I. Berriatua, X. Kintana, J. L. Lizundia eta J. J. Zearreta ere bildu dira, euskaltzainekin batean. A. Irigoyen jaunak eman du azken parte honen berri; bertan aztertu denez, A. Irigoyen bera gelditu da txosten bat idaztekotan, gero batzordekoen artean zabalduko dena. Ekaineko batzarrean azken orraztapena emango zaio.

J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak gertatu duen *Euskal Izendegia* zerbaki berriaren aurkezpena Bilbon, Gasteizen, Donostian, Baionan eta Iruñan egingo da.

d) BIRREZTAPEN BAT: "HIKETA" ETA "ZUKETA":

Josu Oregi jaunak, ondoezik dagoelako, bere etorri ezina agertu du. Honegatik, txosten interesgarri honen kopiak atera dira batzarkide guzaien artean zabaltzeko.

e) "ANDRE" ETA "ANDRA":

Zatarain'dar Anbrosi-ren txostena. Lehenik *andre* zena *andrea*-ra nola igaro zen eta *andrea*-tik berriz *andra*-ra, labor eta xehetasun handiz agertu du.

f) A. Irigoyenek, Zatarain jaunak urtarrileko batzarrean irakurri zuen Ikakoari buruzko erantzunez mintzo da.

L. Villasante jaunak izkribu labor bat irakurri du, "Euskaldun huts-garbien hizketa zintan jasotzeaz".

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

1977 - V - 27

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1977ko maiatzaren 27an, arratsaldeko 4retan, bildu dira: L. Villasante buru, E. Erkiaga, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, J. M. Satrustegi, euskaltzain jaunak; F. Artola, M. Atxaga, J. Fz. Setien, X. Garmendia, J. Garmendia Larrañaga, I. Laspiur, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, J. A. Loidi, J. A. Retolaza, A. Zatarain, euskaltzain laguntzaileak.

Davant, Diharce, Haritschelhar, Hiriart-Urruty, Larzabal eta San Martin jaunak ezin etorria adierazi dute.

E. Knörr idazkari bezala aritu da, J. San Martin elbarriturik dagoe-lako.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Apirileko batzar agiria onartu da.

a) HAR-EMANAK:

Zuzendaritzak erabaki zuen J. B. Merino Urrutia errioxar euskaltzain ohorezkoaren *"El vascuence en la Rioja y Burgos* liburua, agortua denez gero, berriz argitaratzea, jaun honen Errioxa eta euskarari buruzko beste lan batzuekin batean. Edizio berri hau Euskaltzaindiak eta "Instituto de Estudios Riojanos" delakoaren artean egitea birresten da.

Euskaltzainei jakinerazi zaie bi dei jaso direla: bata, Montrealen ospatuko den Hizkuntzalaritza Aplikatuaren Nazioarteko Biltzarrerako, eta bestea, Upsalan eingo den Nazioarteko Elebitasun Sinposiumerako, bietara gure Elkargoa gomitatuz.

J. J. Zearreta, ekonomi eragileak, etorri diren diru laguntzen berri eman du: Iruineko Udalak, 250.000 pezeta eman ditu; Bergarakoak, 100.000; eta beste xumeago batzuk, Amurrio, Audio, Eskoriatza, Usurbil eta Auritzekoak; Heziera eta Jakintzako Ministeritzak, 200.000 pezeta; Zenbait industri kooperatibak ere dirua eman dute: Ampo, Ulma eta Comek. Baita ere Euskal Herriko Arkitekto Kolegio Ofizialak.

b) GOIZEKO BILKURAREN BERRI:

Bilkura berezi bat egin da goizean, euskaltzain oso guztientzat eta joan den Urrian Euskaltzaindiari zuzendu zitzaion idazki bat izenpetu zutenentzat. Hiru puntu zituen idazkiak batipat: Idaz lehiaketak, euskalkien erabilera, eta bi grafia onartzea palatalizazio eta arnasgoran. Bi erantzun jaso ziren sasoiz, Villasanterena bata, eta Irigoyenena bestea. Azken honek erabaki proposamen bat zuen palatalizazioaz. Baita berriki jaso da San Martin eta Villasanteren gutun bana.